



Arartekoaren 2018ko ekainaren 12ko Ebazpena. Horren bidez, Ararteko erakundeko datuak babesteko ordezkariaren irudia sortu eta arautzen da.

EBAZPENA

Joan den maiatzaren 4an argitaratu eta 25ean jarri zen indarrean Datuak Babesteko Europako Erregelamendu Orokorra, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (hemendik aurrera, DBEO). Pertsona fisikoak babesteari buruzkoa da, datu pertsonalak tratatzeari eta datu horiek aske zirkulatzeari dagokienez.

Erregelamendu berri horrek ezarritako neurrien artean, 37. artikuluan datuak babesteko ordezkari bat izendatzeko betebeharra agertzen da, baldin eta datuen tratamendua agintari edo erakunde publiko batek egingo badu.

Arartekoak, DBEOn ezarritakoa betez, zenbait antolaketa-neurri eta neurri tekniko hartu ditu, besteak beste, bere pribatutasun-politika argitaratu du, eta Tratamendu Jardueren Erregistroa prestatu. Era berean, ebazpen honen bitartez, datuak babesteko ordezkariaren irudia arautu du.

DBEOn agertzen den arauditik ondorioztatzen denez, erakunde publiko batean datuak babesteko ordezkari-lanak egiten dituenak zuzenbide arloko ezagupenak egiaztatu behar ditu, datuak babestearen gaineko prestakuntzarekin eta praktikarekin batera.

Hainbat arrazoiengatik proposa daiteke datuak babesteko ordezkariak profil hori izan dezan. Arrazoi nagusia hauxe da: pertsona fisikoen oinarritzko eskubideak eta askatasunak bermatu nahi direla, bereziki beraien datu pertsonalak babestuek izateko eskubidea.

Eskubide eta askatasun horiek babestea estu lotuta dago Ararteko erakundeari legez eman zaion betekizunarekin berarekin, eta gaur egun erakundearen barruan zenbait aditu daude gai horretan, eta horiek ezagupen teoriko eta praktikoetan behar bezala egiaztatutako ibilbidea dute. Horregatik, gure ustez, aukerarik onena une honetan Arartekoan lan egiten duen pertsona bat izendatzea da, eta betekizun horiek orain betetzen ari den lanei gehitzea.

Arartekoak izaera juridikoa berezia du. Ararteko erakundea sortu eta arautu zuen otsailaren 27ko 3/1985 Legean, erakunde burujabe eta alderdikeriarik gabeko gisa eratu zen, eta horren osagarri, erakundeko arduradun nagusia izendatzeko sistema hauxe da: legez, 5 urteko agintaldiak ezarrita daude. Beraz, lege horrek berekin dakarren berezitasuna ezinbestean proiektatzen da sortu nahi den irudi berri honetan, baita ere erregulazio honen babesean egiten den izendapenaren indarraldian, izan ere, agintaldi horren arabera izan behar du.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak- eman dizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

1. Ararteko erakundeko datuak babesteko ordezkariaren irudia sortzea.
2. Irudi horri dagokion erregulazioa eta araubidea onartzea (ebazpen honi erantsita agertzen da).
3. Ebazpen hau Arartekoaren web orrian argitaratzea, jendeak oro har horren berri izan dezan.

Manuel Lezertua Rodríguez
Arartekoa

The image shows a circular logo with a lowercase 'a' inside, and the word 'ararteko' written below it. A handwritten signature in black ink is written over the logo and extends to the right.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko ekainaren 12an

ARARTEKO ERAKUNDEKO DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIAREN IRUDIA ARAUTZEA

1. Xedea

Ebazpen honen bidez, Arartekoko datuak babesteko ordezkariaren irudia sortu nahi da, eta bere araubide juridikoa ezarri, DBEOren xedatutakoa betez.

2. Araubide juridikoa

Datuak babesteko ordezkaria burujabea izango da, organikoki nahiz funtzionalki, autonomia izango du bere eginkizunak burutzeko orduan eta ez du arlo horretan jarraibiderik jasoko.

Gainera, ezingo dute kargutik kendu edo zigortu eginkizun horiek egiteagatik, zuzenean arartekoari emango dizkio kontuak, eta zuzenean haren mende egongo da, organikoki nahiz funtzionalki.

Bere eginkizunak betetzean, izendatutako pertsonak sekretu edo isilpekotasun betebeharra bete beharko du.

3. Izendapena eta kargu-uztea

Datuak babesteko ordezkariaren eginkizunak Arartekoan lan egiten duen pertsona batek beteko ditu. Bere zereginak bateragarriak izango dira erakundean lehendik emanak dituenekin, zuzendaritza lanpostuak betetzea barne dela.

Zuzenean arartekoak izendatuko du. Izendapen horrek indarrean jarraituko du ararteko berri batek kargua hartu arte.

Datuak babesteko ordezkariak, berak hala eskatuta, kargua utziko du ararteko berri bat izendatzean, bere eginkizunak betetzeko orduan bat-batean sortutako ezintasunagatik edo legez eman zaizkion betebeharrak larriki ez betetzeagatik.

Izendapena eta, hala badagokio, kargu-uztea, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari jakinaraziko zaizkio.

4. Datuak babesteko ordezkariaren eginkizunak

DBEOren 39. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako eginkizunak izango ditu:

- a) Arartekoari eta erakundeko partaideei jakinaraztea zer betebeharrak ezartzen dituzten erregelamenduak eta datu pertsonalak tratatzeari ezar dakioken beste edozein araudik.

- b) Erregelamenduan edo aplikatu beharreko beste edozein arauditan ezarritako arauak betetzen ote diren ikuskatzea, baita Ararteko erakundearen politikak ikuskatzea ere. Horretarako, erantzukizunak eman ahal izango ditu, prestakuntzak eta kontzientzia hartzeko kanpainak egin, eta dagozkion ikuskaritza-lanak burutu, araudi hori betetzen dela egiaztatzeko.
- c) Erakundeari inpaktu-ebaluazioaren gainean aholku ematea eta horren ezarpena ikuskatzea; beraz, Arartekoan arriskuen azterketari buruzko ebaluazioa bultzatzea.
- d) Datuak Babesteko Euskal Bulegoarekin lankidetzan aritzea, kontrol agintaria denez.
- e) Datuak Babesteko Euskal Bulegoarekin harreman-gune gisa jardutea tratamenduekin zerikusia duen edozein gaitarako, bereziki DBEOren 36. artikulutik eratorritako aurretiazko kontsultei dagokienez.

Betebehar orokor horiez gain, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak eginkizun hauek adierazten ditu:

- a. Informazioa eskatzea, datu pertsonalen tratamenduak zehazteko.
- b. Tratamendu horiek aztertzea eta zuzenbidearekin bat datozela egiaztatzea.
- c. Erakundeari informatzea, aholku ematea eta gomendioak egitea.
- d. Tratamendu jardueren erregistroa ikuskatzea.
- e. *Privacy by design o by default* delakoaren printzipioak ezartzearen gainean aholkatzea.
- f. Gai hauei buruz aholkuak ematea: inpaktu-ebaluaziorik (PIA) egin behar den ala ez, metodologia, nork egin behar duen, zer segurtasun-neurri ezarri behar diren, ea arriskuen azterketa zuzen egin den eta ea inpaktu-ebaluazioaren emaitza Europako erregelamenduekin bat datorren.
- g. Batez ere eskubide eta askatasunentzat arriskurik handiena dakarten tratamenduetan jardutea.
- h. Agiriak zaintzeaz arduratzea.

5. Ordainsariak eta baliabideak

Datuak babesteko ordezkariaren eginkizunak betetzeak ez du ordainsari osagarriarik eragingo Arartekoan orain betetzen duen lanpostuari lotutako ordainsariaz gain. Datuak babesteko ordezkariaren eginkizunak betetzeko baliabideak Ararteko erakundeak emango ditu.

6. Jendearekiko harremana

Arartekoaren web orrian, erraz ikusteko moduko tokian adieraziko dira datuak babesteko ordezkariaren datuak eta harekin harremanetan jartzeko bideak. Horien bitartez, interesdunak harremanetan jarri ahal izango dira beren datu pertsonalen tratamenduekin eta DBEOren babesean dituzten eskubideak baliatzearekin zerikusia duten gai guztiez mintzatzeko.

ararteko

Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo

XEDAPEN IRAGANKORRA

Arartekoak ebazpen hau indarrean jarri eta gehienez ere 5 eguneko epean izendatuko du datuak babesteko ordezkaria.